

# DIRU ITURRIAK

Irabazi iturri mota asko ezagutzen ditugu, baina, gure proiektuari dagokionez, gure proiektua ordainketa bakarraren bidezko sarrera izango da, hau da, prezio finkoak izango ditu, aldagai estatikoen arabera aurredefinituta daudenak. Mailegua, rentinga eta alokairua erabiliko dugu, hau da, bezeroak behin bakarrik erabili dezake gure produktua eta ondoren berriro itzuli beharko du gure enpresara. Gure bezeroek ardua handia izango dute, bakoitzak alokatu duen prenda egun egokian berriro entregatzeko, eta ez epez kanpo.

Eroslearen arabera prezioak aldatu egingo dira. Prezio finkoei dagokionez, merkatu-segmentuaren arabera prezioa izango du, hau da, eroslea berria bada, gure produktuen prezioak mantendu egingo ditugu dauden bezala, erosle berria delako. Bestetik, eroslea ohikoa bada, hau da, gure baliabideak maiz erabiltzen baditu, prezioak aldatu egingo dira fideltasunaren arabera. Deskontuak eskainiko dizkiegu eta baita sariak banatu ere.

Hasieran, prezioak, erositako dendaren arabera nabarmenduko ditugu. Erositako denda oso luxuzkoa bada, gure prezioak gorakada bat izango du. Adibidez, gure dendako elementua ezkontzarako arropa bada, gure prezioak asko nabarmenduko dira, ez direlako merkeak horrelako arropak. Baina, gure arropa egunerokoan jantziko genukeen arropa bada, prezioak ez dira hain beste nabarmenduko eta prezioak behera egingo dute. Hau guztiarekin, esan dezakegu, ezkontza batentzat diren arropak 150-200€ inguruan egongo direla eta eguneroko arropa berriz 100€ inguru gehienez.

Hau guztia kontuan hartuta eta alokairu bat denez, bezeroek hasieratik diru kantitate guztia ordaindu behar dute eta bermea ere bertan sartuko da, horrela ziurtatuko dugu ondo zainduko dutela. Produktua itzultzen digutenean arroparen egoeraren baitan aurretik jarritako bermea itzuliko zaie edo ez. Ordainketa metodoari dagokionez, txartelaren bidez egingo dira, erosoago izango delako horrela ordaintzea, baina prezio "merkeko" arropetan bai izango dute aukera eskudiruarekin ordaintzeko. Aldiz, gure produktuen erabilera desegokia egiten badute erosleek, diru kantitate handiagoa ordaindu beharko dute mantenua ordaintzeko. Hau hasieran ordaindutako diru prezio baten bidez egingo da, eta kantitate hau prenda bakoitzaren kostuaren arabera izango da, ongi zaindu badute gure produktua diru hori itzuliko zaie eta erabilera okerra bada, dirua ez zaie itzuliko. Beraz, hasieran berme bat, eta erabili ondoren, alokairuaren kobratza eta ondo erabili badute bermea itzuli eta bestela ez.

Ondorioz, gure produktuari aukeratutako ezaugarriak proiektuarentzat onuragarrienak izango direla uste dugu. Merkatu finko batekin, baina bezeroaren arabera aldatzen den merkatuarekin, ekonomia handitu egingo dugu eta gure proiektuan berrikuntza handiak egingo ditugu hau guztiari esker, baita bezeroak ere areagotuko ditugu eta gure enpresa handitu egingo da.